



Austerlitz
W.G. Sebald

Hipnotikoa. Austerlitz liburuan erabilitako prosa hitz batez definitu beharko banu, hitz horixe erabiliko nuke: hipnotikoa. Hasi eta buka, harrapatu egiten zaituen hitz-jario sofistikatu eta konplexua, itzultzailearen trebezia agerian jartzen duten eraketa sintaktikoz beteta, zeinak benetako opari baitira irakurlearen begirako. Arnastu egiten den prosa dela esango banu, ez dut uste inola ere gehiegikeria izango litzatekeenik. Prosa konplexu bat, oso konplexua den pertsonaia batentzat.

Hasieran, ugariak dira eraikinei buruzko deskribapenak, zein baino zein biribilagoak, oso kultuak, ederrak... eta kezkarriak. Bai, kezka, ezinegona barreiatzen dute-eta: “zer esan nahi dute sinbologia aldetik?”, “Zergatik dira horren goibelak?”, edo “zergatik dira horren hotzak, horren enigmatikoak, horren barneraezinak...?”, edo, besterik gabe, “zergatik egiten ditu horrelako deskribapenak?”, “Nora jo nahi du zehatz-mehatz...?”. Galdera horien erantzunak pertsonaiarekin dute zerikusia, pertsonaiak berak oraindik ezagutzen ez duen sekretuarekin. Deskribapen horiek guztiek sekretu hori dute jomugan, hunkigarritasun-leherketa batean eztanda egingo duen sekretuaren atzetik dabilta hasieratik bertatik, pertsonaia eta irakurlea zelatatzen, hertsatzen, oprimitzen... Sekretu goibela, beltza, tristeia, mingarria da; oroimenetik inkontzienteki ezabatzen diren sekretu horietakoa, ezabatzen den gauza bakarria sekretuaren “bolumen fisikoa” bada ere, zeren, ikusi ez arren, hortxe baitago beti, mutagaitz, motxila ikusezin bat nola.

Eta liburuan bertan ere egiten da “motxila” horren aipamena, pertsonaiaren karakterizazioaren parte dena (ziur nago irakurleari ez zaiola oharkabea pasako, esanguratsua baita, azal gaineko deskribapena dela ematen badu ere). Pertsonaiari leku guztietara lagun egiten dion motxila, itxura zaharkitua duena, handia, pisutsua... Gaur egun, psikologian, askotan aipatzen den hitza, “motxila”, haurtzaroan haurrak markatu dituen esperientzia traumatikoa metaforikoki definitzeko erabilia.

Teknika aldetik, produktu alemaniarra dirudi: perfekziotik hurbila, distiratsua, urruna, biribila...

Bi pertsonaia nagusi baino ez daude, protagonistaren dualtasuna osatzen dutenak; eta gero, aparte samar, sekretuaren parte direnak, bat garrantzitsua (Vera Risanová, sekretua argitara ateratzeko ezinbestekoa); gainerako guztiak, berriz, osagarri edo istripu huts, ez askoz gehiago. Eta bakanak, oso.

Kapitulurik ez, paragraforik ez. Hasieratik amaieraraino luzatzen den esaldi bat, puntu eta jarraien bidez egituratua, pertsonaiari inguratzen zaion giro “dentsoarekin”, giro trinko eta “lodiarekin” ezin hobeki bat etorrita.

Mina, noraeza, autismo-puntu bat, errealtateari atxikitzeko eta kanpoko jendearekin harremanetan jartzeko zailtasunak, isolamendua, bakardadea, barne-bizitza gordina, eta azkenean... buruko eritasuna, protagonistak zain zeukana ageriko arrazoiengatik eta sekretua argitara atera arte erabat garatzeko itxaron duena.

Hunkigarria, hitz hori ere erabiliko nuke liburuak sorrarazten duen sentimendua definitzeko, batez ere behin sekretua argitara atera ondoren. Liburuko orri bakoitzera hedatzen den hunkipena, hortik aurrera den-denak hartzen baitu zentzua.

“Ezin da gehiago galdu”, pentsatzen duzu, zeharo abailduta... Eta abaildu hitzetik oso hurbil dagoen beste sentimendu bat, protagonistak beti lauza antzean barruan eraman duena eta bere betiko egoera pertsonala ezin hobeto deskribatzen duena: “abandonua”. Gerra Zibilean Euskal Herriko milaka haur sentitu zuten abandonu berbera, itsasontzi batean bakar-bakarrik abiatu zirenean Belgikarantz batzuk, Ingalaterrarentz beste batzuk, Errusiarantz...

Oroimena erreskatatzen duten liburu delikatu horietako bat, inspirazio handikoa, gure etxeko apalategian leku bat ondo merezi duena eta sentimendu ederrak bezain garratzak utziko dizkizuna.

Jaun-andreok: hau literatura da, letra larriz.